



Bi hausnarketa prozesu herritarrekin

EKINTZA ERAGILEAK

"Astigarragan euskaraz!"
elkartearen lehen urratsak

6

ELKARRIZKETA

Isabel Otero. Harituz elkartearen eta "Matazak indarkeria sexistaren aurka" elkartearen eta proiektuaren sortzaileetako bat

7

IRITZIA

Zer etorkizun izango du
Rezolako eraikinak?

11

Tokiko merkataritza sustatzea helburu

Aurreko urtean egindako herri-gogoetak agerian utzi zituen herritar zein eragileen kezkak. Horren aurrean, Astigarragako Udalak hainbat ekintza burutuko ditu.



Ariz, arropa eta osagarri denda.

Azken hamarkadan Astigarragako herria asko handitu den arren, tokiko merkataritzak behera egin du. Joera hau ez da soilik Astigarragan gertatzen ari, Euskal Herriaren luze-zabalean txikizkako establezimendu komertzialek behera egin baitute. Globalizazioak, erosketa eta kontsumo ohitura berriek eta digitalizazioak merkataritzaren jarduera baldintzatu eta merkataritza eredia eraldaketa sakon bat egitera eramanez dute.

Toki Garapen Jasangarri plana osatzeko egindako herri-gogoetan, Astigarragako herritar eta eragileek tokiko merkataritzarekiko kezka erakutsi zuten.

Errealitate horretan eragiteko helburuarekin, herritar zein sektoreko eragileekin lankidetzan Astigarragako Udalak datozen urteetarako ekintza plana onartu du. Bertan lehenagotik abiatutako hainbat jarduera, beste batzuen egokitzapena eta ekimen berri batzuk abian jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Guzti On, merkataritza ekintzaitzarako dirulaguntzak

Astigarrar ekintzaileek aukera dute, batetik, Beterri-Buruntza Mankomunitatearen aholkularitza, prestakuntza eta laguntza zerbitzua jasotzeko. Eta, bestetik, behin negozio-idea aztertu eta gara-

tuta, Guzti On merkataritza ekintzaitza sustatzeko Udalaren dirulaguntzak jaso ditzakete bi alorretan Astigarragan negozio berri bat abian jartzeko:

- 1.500 euro arte enpresa berria abiarazteak dakartzan hasierako gastuei aurre egiteko.
- 4.000 euro arte Astigarragako gune nagusian hutsik dauden lokaletan jarduera ekonomiko berri bat jartzeko.

*Bi dirulaguntzak 2024ko urriaren 31ra arte eska daitezke. Eskuratu informazio gehiago guztion.astigarraga.eus webgunean.



Baiggü, behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako ehungintzako produktuen eta edonorentzako osagarrien diseinu, ekoizpen eta salmenta.

Fomentar el comercio local como objetivo

Las reflexiones populares que se han hecho sobre el comercio local en los últimos años en Astigarraga, han dejado claro que este es un tema que preocupa tanto a la ciudadanía, como al resto de agentes del sector. Con el objetivo de incidir en esta realidad, el Ayuntamiento de Astigarraga ha aprobado un plan de acción para los próximos años con el que pondrá en marcha una serie de nuevas acciones y adaptará algunas ya existentes:

- **Ayudas al emprendimiento:** Las personas emprendedoras de Astigarraga tienen la oportunidad de recibir, por un lado, el servicio de asesoramiento, formación y apoyo de la Mancomunidad Beterri-Buruntza. Y por otro, las subvenciones Guzti On del Ayuntamiento para hacer frente a los gastos iniciales de un nuevo negocio y para instalar una nueva actividad económica en los locales vacíos del núcleo de Astigarraga.
- **Bonos 2024:** A principios de octubre se puso en marcha la nueva campaña de bonos descuento que estará abierta hasta el 3 de noviembre. Como novedad este año las primeras 300 personas que compren sus bonos, recibirán un bono de 20€ de regalo.
- **Análisis de hábitos de consumo:** El Ayuntamiento está estudiando los hábitos de consumo y necesidades de los y las astigarragarras con el objetivo de reducir la posible brecha entre la oferta y la demanda mediante programas y campañas de sensibilización.

Junkalek, Ariz arropa dendaren jabeak, bere negozioa Astigarragara ekarri zuen Guzti On programako dirulaguntza jasota: “Urte batzuk eman ditut nire arropa dendarekin beste udalerrri batean, baina ziklo horren amaiera heldu zela sentitu nuen. Astigarragak negozio bat jartzeko aukerak ematen zituela ikusi nuen eta orain hemen nago”. Leirek (Baiggü) Guzti On-ek eskainitako laguntza positiboki baloratzen du: “Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa izan da etxekoan laguntza eta bidean ondo bideratu gaituzten pertsonak aurkitu izana. Bidea luzea izan da, baina pausoz pauso lortu dugu. Sinisten duzunean, saiatzea da garrantzitsua.”

bonuak erosi ahalko dira azaroaren 3ra bitarte. Ohi bezala, ordura arte saltzen ez diren bonuak birbanatu egingo dira urriaren 22an bonuak agortuta dituzten establezimenduen artean. Astiko elkartearen eta Udalaren elkarlanari esker, herritarrek % 20ko deskontua jasoko dute erositako bonuetan. Aurten, berrikuntza gisa, ohiko bonuak erosten dituzten lehen 300 erabiltzaileek, 20 euroko bonua jasoko dute opari beste kategoria bateko (edertasuna, osasuna, merkataritza, ostalaritza edo bestelakoak) establezimendu batean erabiltzeko. Horrekin Astigarragako merkataritza eta ostalaritza ezagutzera ematea eta establezimenduek bezero berriak erakartzea lortu nahi da. Bonuak 2024ko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango dira zazpigarren kanpaina honetan parte hartu duten merkataritzako, ostalaritzako eta beste zerbitzuetako 29 establezimenduetan.

Etorkizuneko kontsumitzaileen kontsumo eta ohituren azterketa

Udala Astigarragako 30-44 eta 19-30 urte bitarteko gazteen kontsumo ohitura eta beharrak aztertzen ari da, bai eta Astigarragako eskaintza ere, herritar horien asebetetzea egiaztatzeko helburuarekin. Ondoren, eskaintza eta eskariaren artean egon daitekeen arrakala gutxitzeko, Astigarragako establezimenduetan berriazko esku-hartze programa bat garatzeko asmoa du udalak, eta sentsibilizazio kanpaina bat ere bai, aztertutako herritarren kontsumo erabakietan eragiteko.




2024ko bonoak: sustapen gurutzatua

Astigarragako deskontu-bonuen zazpigarren kanpainari ekin zion Astiko Elkarteak urriaren 8an eta www.astiko.eusweb-orriaren bidez deskontu-

1 El nuevo centro de la ESO avanza con la licencia de obras

Tras la presentación en septiembre del proyecto básico por parte del Departamento de Educación el Ayuntamiento concederá en el Pleno de octubre la licencia de obras para el nuevo centro de la ESO/DBH. El centro contará con una planta baja, dos plantas, semisótano, sótano, un patio exterior cubierto y amplias zonas libres. La superficie total construida será de 6.908,09 m² y el presupuesto, todos los conceptos incluidos, es de 15.055.215,14 €. Tras obtener la licencia, el Departamento de Educación tramitará el concurso para la adjudicación de las obras, con el objetivo de comenzar los trabajos en otoño de 2025.



2 Abierta la zona vallada canina del parque fluvial

La zona habilitada tiene una superficie de 950 m². En su entrada cuenta con una explanada de hormigón en la que se encuentran una fuente, el cubo de basura y unos bancos. El cierre discurre desde el Urumea hacia el riachuelo que está junto al polígono. El coste de las obras de construcción del area ha sido de unos 43.117,25 €.

La regla general es que los perros deben andar atados y los clasificados como peligrosos siempre con bozal.

En las zonas valladas para perros que hay en el pueblo (por ejemplo en la nueva zona del parque fluvial) pueden andar sueltos (los clasificados como peligrosos siempre con bozal). Sin embargo, siempre se deben recoger los excrementos.

3 Nesken talde berriak Mundarron

Futbolean nesken talde berri bat dugu aurten benjamin mailakoa, 2015-2016an jaiotako neskekin. Horrez gain, saskibaloian, senior taldea 1. mailan finkatu da, eta infantil mailatik datorren eta egun jnior mailan dagoen beste talde bat ere badago. Esku-pilotan, federatua dagoen neska bat eta federatu gabeko beste bat ditugu, eta palar, federatu gabeko lau jokalar. Azkenik, eskubaloian, jubenil mailako taldeak finkatuta jarraitzen du, eta esku-baloi-eskolan 2. urteko alebin mailan talde bat dugu eta benjamin mailan beste talde misto bat osatu da, mutil batekin eta 15 neskekin.



4 Actividades para mayores en Astigarraga: Paseos Ttipi-ttapa y curso de sevillanas de Galtzaur

El proyecto Astigarraga Aktibatuz continúa promoviendo la actividad física entre las personas mayores con la actividad Ttipi-ttapa. La actividad se basa en paseos en grupo los miércoles a las 10:30, partiendo desde la plaza Joseba Barandiaran. Esta actividad, cuenta con una persona instructora que guía el grupo, es gratuita y está abierta a todo el público.

Por otro lado, el polideportivo ofrece varios cursos de gimnasia para la tercera edad. Dado que el primer curso que se anunció ya está completo, se han creado dos nuevos grupos los lunes y viernes a las 11:00, con tres plazas disponibles en cada uno. La inscripción se realiza en el polideportivo, con un coste de 10 €/mes para dos días a la semana o 5 €/mes para un solo día.

Además, la asociación Galtzaur ha lanzado un curso de sevillanas para las personas asociadas, que tuvo su primera sesión el 4 de octubre. El curso se celebrará cada viernes durante una hora, y ha tenido un exitoso inicio.



4

5 Astigarragako Udala Euskaraldia 2025erako prestatzen ari da


Astigarragako Udalak Euskaraldiaren prestaketei ekin die. Euskaraldia ariketa soziala da, eta hizkuntza-ohituren aldaketa sustatzea du helburu. Hurrengo edizioa 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo da, Euskal Herri osoan. Udazken honetan dinamizatzaile bat kontratatuko da Topagunearekin elkarlanean jarduerak koordinatzeko, irailean onartutako 20.000 euroko dirulaguntzarekin. Gainera, azaroan hasiko da ekitaldia antolatzeaz arduratuko den herri batzordea.



6 Astigarragako Udalak laneko sexu-eta genero-jazarpenaren aurkako protokolo bat jarri du abian

Astigarragako Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. barne plana hasi du, lan-ingurune berdintza-leagoa sortzeko neurriak ezartzeko helburuarekin. Plan hori bi fasetan garatuko da: irailtik abendura, egungo egoerari eta sexu-jazarpenaren eta generoagatiko jazarpenaren protokoloari buruzko diagnostikoa egingo da, eta 2025eko urtarriletik martxora bitartean, berriz, plan osoa diseinatuko da.

Plana egiteko, jarraipen-talde bat sortu da, alkateak, idazkariak, berdintasun zinegotziak, teknikariak eta langileen bi ordezkari osatua, Murgibeko aholkulariekin. Langileak aktiboki ari dira parte hartzen jada hasi diren elkarrizketa eta galdetegien bidez, eta diagnostikoaren eta protokoloaren emaitzak urtearen amaieran aurkeztuko dira. Plan osoa 2025eko apirilean egongo da prest.



6

“Astigarragan euskaraz!” elkartearen lehen urratsak

Zenbait astigartar herriko euskararen erabilera sustatzeko bilerak eta ekimenak antolatzen ari dira. Elkartearen sustatzaileek herritar oro gonbidatu nahi dute bileretan parte hartzera eta ekarpenak egitera.



Zenbait astigartar lanean ari dira ‘Astigarragan Euskaraz!’ elkartearen sorreran. Aipaturiko elkarte sortzeko ideia guraso talde bati bururatu zitzaion, elkartearen sustatzaileek adierazi dutenez “herrian eta haurren artean geroz eta euskara gutxiago entzuten dela eta. Gure hurrek herrian euskaraz bizitzeko aukera izan dezaten nahi dugu, eta horren alde lan egiteko ueña iritsi dela ikusi dugu”.

Uda aurretik bilerak egiten hasi ziren. Lehen bileran zenbait guraso elkartu ondoren, elkartearen sustatzaileek nabarmendu dute adostu zutela “elkarte familiai soilik eskaini beharrean herri osoari eskaini behar” ziotela. Azken hilabeteetan Astigarragako Erribera Kulturgunean bilera “parte hartzaile eta irekiak” egin dituzte. Bileretara euskararen erabilerarekin “kezkatuta” dauden hainbat adinetako herritarrak gerturatu direla adierazi dute elkartearen sustatzaileek, eta Astigarragako Udalaren laguntza jaso dutela.

Jendearengana iristeko ekimenen bat jarri dute martxan dagoeneko. Esaterako, Santio jaietan egindako kontzien-

tziazio kanpaina, non euskararen erabilerarekin “kezkatuta” dagoen herritar oro bileretara joatera eta gaiari buruz “hausnarketa” egitera animatu zuten.

Gakoa, egunerokoan euskara lehenatasun izatea

‘Astigarragan euskaraz’ elkartearen sustatzaileek euskararen ezagutza duten pertsonak euskaraz ez hitz egitearen zergatia jakin nahi dute: “Arrazoiak jakin nahi ditugu, ondoren beharrak zeintzuk diren ikusteko. Jende hori euskaraz bizitzera animatu nahi dugu”. Era berean, elkarteak herriko eragileak bultzatu nahi ditu beren ekintzetan euskararen erabilerari buruz “hausnarketa egitera”.

‘Astigarragan Euskaraz!’ elkartearen sustatzaileek azpimarratu dute gakoa “egunerokoan euskara lehenatasun gisa ipintzea” dela, eta elkarte sortzeko prozesuan herritar oro bileretan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko gonbidatu dituzte. Sustatzaileak elkarte sortzeko bidea egiten ari dira, eta ikastaro bat egingo dute urtea amaitu aurretik elkartearen helburuak eta beharrak markatzeko, eta elkarte sortzeko.

Los primeros pasos de la asociación ‘Astigarragan euskaraz!’

Un variado grupo de astigartarras está organizando reuniones e iniciativas para impulsar el uso del euskera en el pueblo. Las personas promotoras de la iniciativa invitan a toda la población de Astigarraga a participar en las reuniones y realizar aportaciones.

“Queremos que nuestros niños y niñas puedan vivir en euskera en el pueblo, y hemos visto que ha llegado el momento de trabajar por ello”, han expresado las personas promotoras de ‘Astigarragan euskaraz!’.

Las reuniones han comenzado a celebrarse antes del verano. Los últimos meses se han celebrado reuniones “participativas y abiertas” en Erribera Kulturgunea, y han acudido astigartarras de diversas edades que están “preocupados” por el uso del euskera en el pueblo. Las personas promotoras llevaron a cabo, además, una campaña de concienciación en las fiestas (Santio jaietan) para incitar a las personas interesadas a acudir a las reuniones y a “reflexionar” sobre el tema.

Para ‘Astigarragan euskaraz!’ la clave es “poner el euskera como prioridad en el día a día”, y quieren conocer las razones por las cuales aquellas personas que saben hablar euskera no usan el idioma. Asimismo, están realizando los pasos necesarios para la constitución de la asociación, y van a realizar antes de finalizar el año un proceso formativo para la definición de los objetivos y necesidades de la asociación.



Isabel Otero: "Proiektuak alde guztietara iristen den kanpaina bat du"

Isabel Otero Harituz elkartearen eta "Matazak indarkeria sexistaren aurka" elkartearen eta proiektuaren sortzaileetako bat da. Matazak proiektuak hamar urtetan izandako ibilbideari buruz hitz egin digu.

Astigarragan proiektu aktibo bat dago 2014tik, emakumeen aurkako indarkeriak ikusaraztea eta salatzea helburu duen ekintza kolektiboa. Aurten omenaldia egingo dioten "Matazak indarkeria sexistaren aurka" proiektuaren sortzaileetako bat den Isabel Oterok adierazi du hori 2014ean sortu zela -Harituz elkarteak bultzatuta- bera Astigarragako Udaleko zinegotzi zela, azaroaren 25erako -Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna- "zerbait berezia" egin nahi zutelako.

Harituz Astigarragako Emakumeen eta Gizonen berdintasuneko Eskolako -2013tik 2014ra bitartekoa- emakumeak astero biltzen ziren zenbait ekintza egiteko, baina Oterok adierazi du emakume horiek ehuntzeak lotzen zituela. Matazak proiektuak hasiera batean herria apaintzea helburu zuen lokarri kolektibo baten bitartez, eta proposatu zuten 30 zentimetroko zabalera eta nahi zen luzerako banda bat ehuntzea. Proiektua sare sozialen bitartez munduko alde ezberdinetara iritsi zen, eta egun bakar baterako sortu zen proiektuari jarraipena ematea erabaki zuten. Lokarri kolektiboa zortzi kilometro eta erdi neurtzera iritsi zen.

Zeintzuk dira zuretzat Matazak proiektuak bere sorreratik hamar urtetan egin dituen lorpenik edo ekintzarik garrantzitsuenak?

Biktimen eta feministen elkarteekin batera lan egitea, genero-indarkeriaren aurkako borroka bistaratzea hamar urtetan hainbat lekutan, eta proiektuak alde guztietara iristen den kanpaina bat izatea. Aurtengo kanpaina "Zure Puntadak Hari Bat Du" deitzen da, eta emakume aktibisten nazioarteko sarea sortzen ari gara, genero-indarkeriaren aurkako borroka bistaratzen duena ehun-sorkuntzaren bitartez. Munduko 35 estatutan gaude.

Nola lortu du "Matazak indarkeria sexistaren aurka" proiektuak munduko hainbat tokitara iristea?

Munduko hainbat tokitatik ehun-zatiak iritsi zitzaizkigun, eta gu pertsona horiekin harremanetan jarri ginen kontaktua mantentzeko. Gurekin ere harremanetan jartzen dira, batez ere Espainiako Estatuan, ekitaldi bat egin nahi duten elkarteak eta udalak. 2018tik Pentsamendu Feministaren Topaketak ere egingen ditugu, non urtero emakumeengana indarkeria bat bistaratzen dugun. Aurten urriaren 19an Astigarragako Erribera Kulturunean, "Genero indarkeria eta aniztasun funtzionalak".

Zer jardunaldi eta proiektu dituzue aurreikusita etorkizunerako?

Pentsamendu Feministaren Topaketeekin jarraitzea, eta urtero ekainean egingen den "Puntu eta Kitto"-rekin jarraitzea -Jendaurrean Ehuntzeko Nazioarteko Eguna, non Euskal Herriako zenbait he-

rritan ehuntzeko emakume talde bat elkartzen den kalean-. Horrez gain, aurtengo omenaldiko irudi batzuk grabatuko dizkigute, eta dirua badugu, Matazaken 10. urteurrenari buruzko dokumental bat egingo dugu. Datu-base bat ere sortu nahi dugu, hamar urteotan egin ditugun kontaktu guztiekin, eta eragin politikoa izan nahi dugu Europako Parlamentuan eta Nazio Batuen Erakundean.

Isabel Otero: "El proyecto tiene una campaña que llega a todas partes"

Isabel Otero fue una de las creadoras del proyecto "Madejas contra la violencia sexista", que busca visibilizar y denunciar las violencias a las mujeres. Fue creado en Astigarraga en 2014 para el día 25 de noviembre, con motivo del Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer. Consistía en elaborar un tejido de 30cm de ancho y la longitud deseada, para hacer un lazo colectivo y así decorar el pueblo. El proyecto llegó a otros países a través de redes sociales, y a lo que en un principio iba a ser para un día decidieron darle continuidad. A día de hoy llega a 35 estados del mundo.

Desde 2018, en octubre de cada año Madejas organiza en Astigarraga Jornadas de Pensamiento Feminista, y en junio de cada año organiza "Puntu eta Kitto" -con motivo del Día Mundial de Tejer en Público, grupos de mujeres se juntan en varios municipios del País Vasco para tejer en la plaza-. Este año está llevando a cabo la campaña "Tu Puntada Tienen Un Hilo", que busca crear una red mundial de mujeres activistas.

Indarkeria matxistarik ez!
AZAROAK 25 · 18:30 · MANIFESTAZIOA
Erriberatik Emakumeon Plazara



Astigarragak herritarren parte-hartzea bultzatu du bi hausnarketa prozesu berriekin

Udazken honetan, Astigarragako Udalak kolektibo espezifikoei zuzendutako bi parte-hartze prozesu abiatu ditu: A* Gazteak eta A* elkargunea +55, biak espazio jakin batzuen diseinuari buruzkoak.



Alde batetik, Urumeako lokala, 55 urtetik gorako herritarrei zuzendua, eta, bestetik, Kultur Etxe Zaharra, gazteei eta nerabeei zuzendua. Bi prozesuak "A* Nahi dugun Astigarragantz" markaren parte dira, eta urrian hasi eta 2025eko lehen hiruhilekoan amaituko dira.

Prozesu horiek Udalak bultzatutako hainbat ekimenen barruan kokatzen dira, herritarrak espazio publikoen etorkizunari buruzko erabakiak hartzen inplikatzeko. Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da proiektu horiek herritarren benetako beharrak islatzen dituztela bermatzeko, eta, kasu honetan, arreta berezia eskaini nahi zaie Astigarragako komunitate-bizitzan funtsezko zeregina duten bi kolektibori: adinekoei eta gazteei.

Udalak herritarrekin batera diseinatu nahi ditu bi talde horien beharrak asetzeko etorkizuneko topaguneak eta zerbitzuak, Astigarraga biziagoa, inklusi-boagoa eta kohesionatuagoa sustatuz.

Saio irekiak eta galdetegiak: zure ahotsak axola du

Parte-hartze zabala bermatzeko, Udalak bost saio ireki antolatu ditu guztira: hiru saio 55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako espazioa diseinatzeko eta gazteen espazioa diseinatzeko bi saio.

55 urtetik gorakoen lehenengo saioa urriaren 10ean izan zen eta gazteena urriaren 26an. Gainera, interesa duen edonork bere ikuspegia eman dezake galdetegi bat betez. Online erantzun ahal izango dira udal webgunearen birtartez eta A* elkargunea +55 galdetegiaren kasuan, paperean ere bete ahal izango dira, herriko hainbat eraikinetan jarri diren postontzietan: Galtzaur elkarte, Erribera kulturunea, Eguneko Zentroa eta Udaletxea.

Saio irekiak aukera paregabea dira herritarrek modu aktiboan parte har dezaten etorkizunean erabiliko dituzten espazioen diseinuan eta plangintzan. Ez da alde aurretik izena eman behar, eta horrek erraztu egiten du interesa duen edozein pertsona bertaratzeko eta bere ideiak eta proposamenak parte-hartzea.

A* +55

• **Lekua:** Erribera Kultur Etxea

- **Azaroaren 7an, 17:30ean:**
Espazioen antolaketa

- **Azaroaren 28an, 17:30ean:**
Kudeaketa eta funtzionamendua

A* Gazteak

• **Lekua:** Kultur Etxe Zaharra

- **Urriaren 26an, 11:00etan:**
Espazioen beharrak eta antolaketa zehaztea

- **Azaroak 16an, 11:00etan:**
Eraikinaren kudeaketa eta funtzionamendua

Saio horietako bakoitza funtsezkoa izango da espazioen xehetasunak zehazteko. Gazteen kasuan, beren burua identifikatuta sentitzeko eta beren adinerako eta interesetarako garantzitsuak diren jarduerak egin ahal izateko leku bat sortzea da helburua. Adinekoentzat, zahartze aktiborako funtsezko zerbitzuak eta aukera berriak uztartuko dituen ingurunea diseinatzea da erronka.



**Nahi dugun
Astigarragantz**

A* +55: Gure adinekoentzako espazio berri bat diseinatzeko

Prozesu honen helburua da Aiotzategi kalean, ibai-parkearen ondoan, topagune bat diseinatzea, egungo zerbitzuak (eguneko zentroa, eguneko arreta eta Galtzaur Elkarte) integratzeko eta etorkizunerako zerbitzuak aukera berriak aztertzeko. 55 urtetik gorako herritarren ahotsa funtsezkoa izango da espazio horrek nolakoa izan behar duen eta zer zerbitzu eskainiko dituen definitzeko.

Elkargune hau, espazio fisiko bat ez ezik, interakzio sozialerako leku bat ere izango da, non herriko adinekoak bildu ahal izango diren, jardueretan parte hartu ahal izango duten eta eskaintzen diren zerbitzuez gozatu ahal izango duten. Asmoa da leku hori erreferente bihurtzea komunitate nagusiarentzat, ongizatea, kohesioa eta kide izatearen zentzua bultzatuz.

Udalak dei egiten die herritarrei saioetan parte har dezaten eta beren ideiak parteka ditzaten galdetegiaren bidez, sarean zein formatu fisikoan.



A* Gazteak: Gazteentzako erreferentziako gunea

Bestalde, Kultur Etxe Zaharra erreferentziako gunea izango da tokiko gazteentzat. Udalak herriko nerabe eta gazteak gonbidatzen ditu gune berri hau diseinatu eta kudeatzeko prozesuan parte hartzera, haien interes eta beharrei erantzuten diela ziurtatzeko.

Espazio horrek kultura-jarduerak hartzeaz gain, gazteentzako egunero topaleku ere izatea espero da. Ildo horretan, Udalak gazteak berak prozesu honen protagonista izatea nahi du, jarduerari, espazioaren diseinuari eta kudeatzeko moduari buruzko ideiak emanez. Belaunaldi berrien konpromisoa funtsezkoa da espazio hori dinamikoa eta garrantzitsua izango dela bermatzeko.

Astigarragako gazteen etorkizuna haien ahotsak entzutean datza. Hori dela eta, saio irekietan modu aktiboan parte hartzera eta galdetegi online betetzera animatzen da, urriaren 2tik 15era.

Informazio gehiago eta kontaktua

Prozesu horiei eta galdetegiari buruzko informazio guztia eskuragarri dago udalaren webgunean: astigarragarantz.eus. Partehartzeari buruzko edozein zalantza argitzeko, Udalarekin jar zaitezke harremanetan astigarragarantz@astigarraga.eus helbidean edo 638 206 586 telefonoan.



Astigarraga impulsa la participación ciudadana con nuevos procesos de reflexión

El Ayuntamiento de Astigarraga ha lanzado dos nuevos procesos de participación ciudadana para este otoño, uno dirigido a personas mayores de 55 años y otro a jóvenes y adolescentes. Ambos procesos buscan diseñar espacios públicos adaptados a las necesidades de estos colectivos. Se realizarán cinco sesiones abiertas entre octubre y noviembre, y la ciudadanía también podrá aportar sus ideas mediante cuestionarios online. Para más información, visita astigarragarantz.eus o contacta con el Ayuntamiento.

Udalak brigadako taldea eta zerbitzuak indartu ditu

Udalak bere brigada-taldea indartu du, arduradun berri bat eta bi peoi berri sartuz, 2023ko lan-eskaintzaren ondorioz. Bi peoiak hasi dira lantaldeko bi kidek erretiroa hartu zutelako eta arduraduna lanpostu berri bat sortu delako. Horrela, gaur egungo brigada bost pertsonak osatzen dute.



El Ayuntamiento refuerza el equipo de brigada y sus servicios

El Ayuntamiento ha reforzado su equipo de la brigada municipal con la incorporación de un nuevo responsable y dos peones, tras la jubilación de antiguos miembros y la creación de un nuevo puesto. Además, cada año se contratan nuevas personas a través de planes de empleo de cinco meses, priorizando en la convocatoria de este año a mujeres, cuyo plazo de inscripción ya ha finalizado.

El equipo de la brigada se encarga de servicios clave como el mantenimiento de edificios y mobiliario urbano, la reparación de pavimentos y la distribución de material para eventos, garantizando así un servicio eficiente y completo para la comunidad.

Horrez gain, Udalak urtero bi eta hiru langile artean kontratatzen ditu aldi baterako enplegu-planen bidez, bost hilabeteko kontratuekin, normalean abendutik maiatzera bitartean. Plan horiek iraupen luzeko langabeentzat, gazteentzat, 55 urtetik gorakoentzat eta emakumeentzat dira, eta azken horiei eman zaie lehentasuna aurtengo deialdian. Plaza hauetan izena emateko epea amaitu den arren urtero egiten den deialdia dela gogorarazi nahi da.

Brigadak komunitatearentzat funtsezkoak diren zerbitzu ugari ematen ditu, besteak beste, udal-eraikinak mantentzea, altzariak konpontzea, argiztapen-elementuak ordezkatzeta eta ur-iturri eta -sistemak mantentzeko lanak egitea. Ekitaldietarako azpiegiturak presatzeaz ere arduratzen dira, eta materiala banatzen dute, hala nola hesiak, aulkia eta mahaia.

Gainera, hiri-altzariak mantentzeko lanak egiten dituzte, zaborrontziak, bankuak eta informazio-panelak konpontzen dituzte, eta ur-horniduran egon daitezkeen matxurak konpontzen dituzte. Azkenik, kale eta plazetako zoladurak konpontzeaz arduratzen dira.

Zerbitzu honen helburua da hiri-ingurunea eta espazio publikoak beti egoera onean egotea bermatzea, eta, horrela, bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea. Brigada ahalegintzen da sortzen den edozein premiari arin eta eraginkortasunez erantzuten, udal-azpiegitura herrian egiten diren ekitaldi eta jardueretarako beti prest dagoela ziurtatuz.

Udalak komunitateari zerbitzu integrala eta eraginkorra emateko konpromisoa hartzen jarraitzen du, sortzen ari diren beharretara egokitzuz, talde presatatu eta gaitu batekin.

Zer etorkizun izango du Rezolako eraikinak?

¿Qué futuro le espera al edificio de Rezola?

Trenbideko obrak eta uholdeak arintzeko lanak amaituta, beste galdera bat sortu da Ergobiko zubiaren beste aldean dagoen gunearen etorkizunari buruz. Astigarragako erdigunean dago Rezola eraikina. Udal jabetzako eraikina da, eta orain berrerabiltzeko aukerak aztertu nahi dira.

Udal gobernari funtsezkoa iruditzen zaio udaleko taldeek erronka honi aurre egiteko dituzten iritziak ezagutzea. Zer erabilera eman beharko litzaioke espazio horri? Nola berreskura genezake komunitatearen onurarako? Zein proiektuk biziberritu dezakete eremu hori?

Finalizadas las obras ferroviarias y de control de inundaciones, surge una nueva pregunta sobre el futuro de la zona situada al otro lado del puente de Ergobia. El edificio Rezola situado en el centro de Astigarraga. Se trata de un edificio de propiedad municipal y se están estudiando las posibilidades de su reutilización.

Al gobierno municipal le parece fundamental conocer las opiniones de los grupos municipales para afrontar este reto. ¿Qué uso se debería dar a este espacio? ¿Cómo podríamos recuperarlo en beneficio de la comunidad? ¿Qué proyectos pueden revitalizar esta zona?

Xabier Urdangarin

EHBildu

Errioaren ertzean daukagu, Ergobian, garai bateko Rezolaren eraikina, hutsik, utzita. Ura Agentziak errioaren alde horretan egindako lanen ondotik, abiadura handiko trenbidearen obren ondotik, ingurua beste itxura bat hartzen ari da. Epe erdira Ura Agentziak uholdeen aurkako bigarren faseko lanak egingo ditu eta Ergobiko zubia birgaituko du. Eremu horretan epe erdi eta luzera, errioaren bi alboetan, eremu berdeak nagusituko dira, errioak gainezka egiten duenean emariak zabalera osoan lekua izan dezan.

Rezolako eraikina arkitektura industrialaren erakusle interesgarria da, zalantzarik gabe. Horrekin batera, errio ertzean dago, urak har dezakeen eremuan. Ondoa, ganean, azpiegitura erraldoiak ditu.

Testuinguru horretan kokatzen dugu Rezolaren eraikin zaharraren inguruko galdera hau. Errioa, Urumea, Astigarragarentzat eta eskualdearentzat zer izan den eta gaur egun zer den erakutsiko duen jadueraren bat irudikatzen dugu bertan, inguruari balioa emango diona, gure historia gaur moldeetan eskainiko duena. Ergobiko zubia, errioa igarobide gisa, sagastiak (XX. mendearen hasierako argazkietan eremu hori sagastiz beteta agertzen da), ... Eraikina zaharberritzearekin batera, gure nortasuna berritzeko lekua izan daiteke, iturri zaharretik edanda biziberritzeko. Ahalegin handia eskatu digu ziurrenik, eta askoren lankidetzaz beharko dugu. Erronka handi bezain polita, errio ertzean.

EAJ-PNV

Ale honetarako EAJ-PNVk ez du iritzirik bidali.

Patxi Suarez

PSE-EE

Joan den maiatzean, "240.000 euro zure esku" izeneko partehartzeko aurrekontuen kontsulta egin zen, eta proposamen bozkatuena merkatu estali bat sortzea izan zen; hala ere, kontsultaren datu deigarri bat izan zen Rezolako eraikina birmoldatzen hasiateko proposamen bozkatuenetako bat izan zela.

Horrek erakusten du Astigarragako herritarren kezken eta interesen artean Ergobiako Rezola eraikina dagoela, eta edozein urrats herriko bizilagunen arteko elkarriketarekin eta adostasunarekin egin behar dela.

Eta ez da hain harritzekoa, izan ere Gipuzkoako Arkitektura Gidan jasotako eraikina da, baloratu behar duguna, gure kultura eta industria ondarea eta gure memoria osatzen dituen; ondasun honek gainera erabilera publikokoa eta herritarrentzat izan behar du.

El pasado mes de mayo se realizó la consulta de los presupuestos participativos "240.000 euros en tus manos", y la propuesta más votada fue la creación de un mercado cubierto; sin embargo un dato llamativo de la consulta fue que una de las propuestas más votada fuera iniciar la remodelación del edificio de Rezola.

Esto refleja que entre las preocupaciones y los intereses de la ciudadanía de Astigarraga figura el edificio Rezola de Ergobia, y que cualquier paso se debe hacer siempre con el diálogo y con el acuerdo los vecinos y vecinas del pueblo.

Y no es de extrañar, ya que se trata de un edificio recogido en la Guía de Arquitectura de Gipuzkoa, que debemos valorar, que forma parte de nuestro patrimonio cultural e industrial y de nuestra memoria; un bien que además puede y debe ser de uso público y ciudadano.

ASTIARRAKO GAU BELTZA



Urriak 26 larunbata

17:00 | Erribera kulturgunean

Gau Beltzako eskulan tailerra eta jantzien erakusketa
Tailerrerako izena eman behar da
astiarakogaubeltza@gmail.com helbidera idatziz.

17:30 | Gaztelekuan

Gau Beltzako apainketa prestatzeko tailerra

Urriak 31 asteartea

17:30etik aurrera | Foru plazan

Makillaje tailerra + Fotokola

19:30 | Hilerritik abiatuta

Kalejira*

* Kalejiran danborra jotzen, antortxa eramaten, arima bezala,... PARTE HARTU nahi baduzu EMAN IZENA! astiarakogaubeltza@gmail.com helbidera idatziz.

